

UR MAKILA

Helburuak

Taldea isilik eta adi egotea lortzea.

Ahotsa goratu beharrik izan gabe hitz egin ahal izatea.

Parte hartzaileak

+5

Garapena

Taldea biribilean esertzera gonbidatuko dugu.

Ur makila zer den erakutsiko diegu; perkusio instrumentu bat dela eta oso soinu atsegina duela azalduko diegu.

Nola erabiltzen den eta nolako hotsa ateratzen duen erakutsiko diegu.

Parte hartzaile bati pasatuko diogu ur makila, probatu dezan. Horrek ondokoari pasatuko dio gero, hark ere proba dezan; eta horrela hurrenez hurren, talde osoak ur makilarekin esperimendu arte.

Jolasean edo hizketan ari direla zerbait jakinarazi nahi badiegu, isiltasuna eskatzeko ur makila erabiliko dugula azalduko diegu.

Proba bat egingo dugu. Hizketan has daitezten eskatuko diegu. Halako batean, ur makila astinduko dugu. Isiltasuna nagusitzen denean, geu hasiko gara hizketan.

Antolaketa

Dinamizatzaileak ur makila eskuetan duela egingo du aurkezpena.

Jolas eremua

Edozein.

Denbora

15 minutu aurkezpena egiteko.

2 minutu isiltasuna lortzeko.

Materiala

Ur makila bat.

Aldaerak

Ur makilaren ordean, hots gozoko beste instrumentu bat erabil dezakegu: gopor tibetar bat, plater txinatarrak, etab.

Gomendioak

Gomendagarria da aurkezpena egitea eta taldeak instrumentuarekin esperimendatzea, haien artean lotura bat sor dadin, eta estrategia arrakastatsuagoa gerta dadin.

Ebaluazioa

Isiltasuna lortzen den ikusi.